

2018/07/04

KULTURA

Bizitzaren joanaz dihardu Rafa Ugaldek «Hondar aleak» poema bilduman

GARA | DONOSTIA

INPRIMATU

BIDALI



Atzera begira jarri da Rafa Ugalde "Hondar aleak" liburua osatzen duten poemak idazterakoan. Azken urteotan landutako idazlanak dira orain Erein-en eskutik argia ikusi dutenak, iaz Bilboko Udalak antolatutako Blas de Otero Nazioarteko X. Poesia Lehiaketa irabazi zutenak.

«Bidea luzea izan da eta denbora tarte horretan hainbat gorabehera eta era askotako sentipenak sortu zaizkit», kontatu zuen atzo lanbidez euskara teknikaria eta ikasketez Biologian lizentziatua den

zornotzarrak.

Bere lehen poesia liburua da honakoa, nahiz aurretik gazte literaturan aritu den. «Poesia oso ulergarria da, bizitzaren eskarmentua erakusten duen poema liburua», Iñaki Aldekoa editorearen esanetan.

«Liburuak bizitzaren ibilbidea islatzen du. Sasoi desberdinak ikusten dira, sasoiaren arabera gauzak desberdin ikusten eta sentitzen ditugu», azaldu zuen Ugaldek atzo Donostian egindako aurkezpen ekitaldian. Irakurleak duela 20 urtetik gora idatzitako aleak topatuko ditu liburuan. «Poesia multzo horretatik zeozer gorpuzten saiatu naiz eta ikusi dut ibilbide bat egin daitekeela», gaineratu zuen.

Landutako gaiei dagokienez, hauek dira nagusiak: euskaldunok gure izaera erreibindikatzeko dugun beharra, maitasuna, eskuetatik ezinbestean doakigun denbora eta haurtzaroa.

GAIAK

Haurtzaroa, maitasuna, euskaldunok gure izaera erreibindikatzeko dugun beharra, eskuetatik ezinbestean doakigun denbora, insatisfakzioa eta heriotza dira landutako gai nagusiak.

PUBLIZITATEA



AZKENAK



naiz: Retweeted



Ion T. Barrena

@iontelleria

#Sanferminak @info7irratia ren saio berezia orain ZUZENEAN naiz.eus/zuzenean.html eta 11.00etatik aurrera zuzeneko irudiak plazatik #txupinazoa naiz.eus



14m

naiz: Retweeted



Naiz+

@naizplus

«En cuanto aprendió a contar, esta niña contó hasta nueve las puertas que debe cruzar para abrazar a

HEMEROTECA GARA HASTA 12/11/2013

HEMEROTECA GARA DESDE 12/11/2013

Heriotza ere presente dago "Hondar aleak" liburuan. Bada atzoko ekitaldian Aldekoak azpimarratu zuen esaldi berezia —«50 urtetik aurrera hiltzen hasten goazak»—, adiskide batek Ugalderei berari esana. «Beraz, ni hiltzen hasia naiz. Heriotza noiz etorriko den? Ez dakigu. Pertzepzioa urteen joanarekin aldatu egiten zaigu eta benetako heriotza horretara heldu arte bizitzan izandako gorabeherak agertzen dira», azaldu zuen Ugaldek.

«Bide horretan, heriotza benetan iritsi bitartean insatisfakzioa dago eta hori ere agertzen da liburuan», esan zuen.

Sarrionandiak toki berezia du bere apalategian eta bada haren omenezko poema bat, "Ni ez naiz hemengoa". «Batzuetan ez dakigu gure burua non kokatu, 'zer da bizitza'?, galdetzen diogu geure buruari», bota zuen.

Hainbat hausnarketa eragin dizkio bizitzaren joanak Ugalderei. «Berba larregi eta modu artifizialean erabiltzen dugu. Formazioz biologoa naizenez badut sentsibilitatea animaliekiko eta barruan daukagun animalia ahaztu eta berbetan gehiegi murgiltzen gara, eta ez isiltasunean», esan zuen.

Eta amaieran, aita. «Aitaren figura begi begiralea da liburuan zehar». Hala aitortu zuen: «Zuhaitzaren forma hartzen du, lehenengo makala eta gero haritza. Aitaren begia hor egon da beti eta azken poesiak aitari egindakoak dira. Duela 8-9 urte hil zen eta une hartan idatziak dira, etapa bat bukatutzat emanez».